

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEGAZPIKO UDALA

Merkataritza Zerbitzua

Iragarkia

Legazpiko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2026ko ekainaren 22an egindako ohiko bileran, honako erabakia hartu zuen:

1. Merkataritzan, ostalaritzan eta tokiko zerbitzuetan jarduera ekonomikoa sustatzeko 2026ko dirulaguntzen oinarri espezifikoa eta deialdia onartzea.

2. Oinarri horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Legazpi, 2026ko ekainaren 23a.—Eric Galvez Alvarez, alkatea. (4303)

Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko eta tokiko merkataritza suspertzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Legazpiko Udalaren helburu nagusienetako bat da tokiko ekonomia sustatzea.

Premisa horrekin, eta zerbitzuen sektoreak udalerriko garapen ekonomikorako, herriko bizitasuna eusteko eta gizarte-koheziarako duen garrantzia kontuan hartuta, Udalak merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako txikizkako negozio berriak sortzea bultzatu nahi du, eta lehendik dauden iraunkortasuna sustatu.

Zehazki, dirulaguntza honen bidez, aipatutako sektoreetako jarduera ekonomikoei lagundu nahi zaie honako prozesu hauekin:

- Modernizazioa eta iraunkortasuna.
- Negozio berrien ekintzailatza.
- Negozioetako enpresa-erlebeoa.

Horretarako, bi dirulaguntza lerro gaitu dira:

a) Dirulaguntzaren lehen lerroa merkataritza-lokalak berri-zearen ondorioz egindako inbertsio eta gastuei aurre egiteko izango da, bai eta jarduera garatzeko behar diren ekipoak eta makinak erosteko ere.

b) Dirulaguntzaren bigarren lerroa enpresa-ekimen berri bat abian jartzeko edo lehendik dagoen negozio bat eskualdatzeko egin beharreko hasierako gastuei aurre egiteko izango da.

2. artikulua. Organo eskuduna.

Legazpiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea da oinarri hauek onartzeko organo eskuduna, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.2 artikuluan eta Udal honek onartutako aurrekontua betearazteko arauan ezarritakoaren arabera.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

Servicio de Comercio

Anuncio

Que la Junta de Gobierno local del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 22 de junio de 2026 adoptó el siguiente acuerdo:

1. Aprobar las bases específicas y convocatoria para 2026 de las ayudas para el fomento de la actividad económica en el comercio, la hostelería y los servicios locales.

2. Publicar dichas bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Legazpi, a 23 de junio de 2026.—El alcalde, Eric Galvez Alvarez. (4303)

Bases específicas para la concesión de ayudas económicas destinadas a la mejora de la competitividad de las pequeñas y medianas empresas y a la revitalización del comercio local.

DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

Artículo 1. Objeto.

Uno de los principales objetivos del Ayuntamiento de Legazpi es la promoción de la economía local.

Con esa premisa, y considerando la importancia que el sector servicios tiene en el desarrollo económico del municipio, así como en el mantenimiento de la vitalidad urbana y la cohesión social, el Ayuntamiento quiere promocionar la creación de nuevos negocios minoristas de comercio, servicios y hostelería, y fomentar la sostenibilidad de los ya existentes.

En concreto, y mediante el otorgamiento de esta subvención se pretende ayudar a las actividades económicas de los sectores mencionados en los procesos de:

- Modernización y sostenibilidad.
- Emprendizaje de nuevos negocios.
- Relevo empresarial de negocios.

Para ello, se han habilitado dos líneas de subvención:

a) La primera línea de subvención está destinada a hacer frente a las inversiones y gastos derivados de la reforma de locales comerciales, y para la adquisición de los equipos y maquinaria necesarios para el desarrollo de la actividad.

b) La segunda línea de subvención está destinada a hacer frente a los gastos iniciales de la puesta en marcha de la iniciativa empresarial o de la transmisión de un negocio ya existente.

Artículo 2. Órgano competente.

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Legazpi, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la norma de ejecución presupuestaria aprobada por este Ayuntamiento.

3. artikulua. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauek eta laguntza ematen den unean indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte laguntzak ematea eta onuradunaren eta laguntza ematen duen erakundearen arteko harreman juridikoa.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dute dirulaguntza:

— 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

— 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

— Legazpiko Udalak dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorrak, Udalbatzak 2006ko abuztuaren 8an onartua.

4. artikulua. Onuradunak.

Ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoa izan daitezke laguntza hauen onuradun:

* Enpresaren jarduera nagusia mota hauetakoren batekoa izatea:

— Txikizkako merkataritza.

— Ostalaritza.

— Pertsonen zuzendutako zerbitzuak, ausazko jokoan eta apustuen jarduerak izan ezik.

* 10 langile baino gutxiago eta 2.000.000 euro baino gutxiagoko fakturazioa izatea.

* Bere jarduera ekonomikoa Legazpin kokatutako lokal baten gauzatzea. Ez da beharrezkoa izango pertsona edo enpresa eskatzaileen egoitza soziala Legazpin izatea.

* Negozioa jendearentzat irekita egotea ohiko merkataritza-ordutegian.

* Enpresak alta emanda egon beharko du Ekonomia-jardueren gaineko Zergan, merkataritzaren eta ostalaritzaren epigrafe espezifikoetan, bai eta zerbitzu-jardueren epigrafeetan ere.

* Lokala egokitze obrak eginez gero, dagozkion obrak egiteko edo legeztatze udal-lizentzia eskatu izana.

* Enpresak egunean izan beharko ditu Legazpiko Udalarekiko zergak, tasak eta/edo isunak, bai eta gainerako zerga-betebeharrak ere.

* Enpresak alta emanda egon beharko du Gizarte Segurantzaren eta ordainketak egunean izan beharko ditu.

* Aurreko bi urteetan kontzeptu berdinagatik dirulaguntzarik jaso ez izana.

5. artikulua. Baztertzak.

Dirulaguntzen Udal Ordenantzan adierazitakoaz gain, ezin izango dira dirulaguntza honen onuradun izan honako hauek:

— Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako jarduerak.

— Udal honekiko ordainketa-betebeharretan egunean ez dauden zergadunek aurkeztutako eskabideak, bai eta gainerako zerga-betebeharretan edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean ez daudenek aurkeztutakoak ere.

— Gaur egun indarrean dagoen jarduera publikoen legea betetzen ez duten erakunde edo pertsona fisikoek aurkeztutako eskabideak (jaiotza, arraza, sexu edo erlijioagatiko diskriminazioagatiko debekuak).

— Ausazko jokoan eta apustuen negozioak.

— Elkarte- edo lanbide-jarduerak duten erakundeak (elkarrekin, elkargo profesionalak, etab.).

Artículo 3. Normativa aplicable.

La concesión de las ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su otorgamiento.

Además de lo establecido en estas bases, esta subvención será regulada por:

— La Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.

— El Reglamento General de Subvenciones aprobado por el Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

— La Ordenanza General Reguladora del otorgamiento de subvenciones por el Ayuntamiento de Legazpi aprobada por el Pleno de la Corporación el 8 de agosto de 2006.

Artículo 4. Personas beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias de estas ayudas, las personas físicas o jurídicas que reúnan las siguientes condiciones:

* Que la actividad principal de la empresa sea de alguno de los siguientes tipos:

— Comercio al por menor.

— Hostelería.

— Servicios dirigidos a personas, excepto actividades de juegos de azar y apuestas.

* Que disponga de menos de 10 personas empleadas y una facturación de menos de 2.000.000 de euros.

* Que realice su actividad económica en un local situado en Legazpi. No será necesario que las personas o empresas solicitantes tengan su domicilio social en Legazpi.

* Que el negocio esté abierto al público en horario comercial habitual.

* La empresa deberá estar dada de alta en el IAE en los epígrafes específicos de comercio y hostelería, así como de las actividades de servicios.

* En el caso de realizar obras de acondicionamiento del local, haber solicitado la correspondiente licencia municipal de obras o de legalización.

* La empresa deberá estar al corriente del pago de impuestos, tasas y/o multas con el Ayuntamiento de Legazpi y del resto de obligaciones tributarias.

* La empresa deberá estar de alta en la Seguridad Social y al corriente de los pagos.

* No haber recibido en los dos años anteriores subvención por el mismo concepto.

Artículo 5. Exclusiones.

No podrán ser beneficiarias de esta subvención, además de lo señalado en la Ordenanza Municipal de Subvenciones:

— Actividades recogidas en los artículos 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Solicitudes presentadas por contribuyentes que no estén al día en las obligaciones de pago con este Ayuntamiento, así como del resto de obligaciones tributarias o con la Seguridad Social.

— Solicitudes presentadas por entidades o personas físicas que no cumplan con la ley actualmente en vigor de actividades públicas (prohibiciones por discriminación por nacimiento, raza, sexo o religión).

— Negocios de juegos de azar y apuestas.

— Entidades con actividad asociativa o profesional (asociaciones, colegios profesionales, etc.).

6. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Honako ekintza hauek jaso ahal izango dituzte laguntzak:

a) Merkataritza-lokalak berritzearen ondorioz egindako inbertsioei eta gastuei aurre egiteko, eta jarduera garatzeko behar diren ekipoak eta makinak erosteko dirulaguntzen lehen le-roan, honako ekintza eta gastu hauek lagunduko dira diruz:

* Merkataritza-lokal bat berritzeko edo egokitzeko eginda-ko obren gastuak:

— Zerbitzu profesionalak kontratatzea proiektua, txosten tek-nikoak eta abar egiteko eta idazteko.

— Obra kontratatzea eta gauzatzea.

— Ekipoak eta altzariak erostea eta instalatzea.

— Beharrezko udal-lizentzien tasak.

* Merkataritza-jarduera nagusia egiteko beharrezko eki-pamendua eta makineria eskuratzeko gastuak:

— Establezimenduaren jarduera nagusiarekin zuzenean eta argi zerikusia duten ekipamenduak eta makineria erostea, ins-talatzea eta muntatzea.

— Aktibo horiek enpresan gutxienez 2 urtez egon behar dute erosi zirenetik (fakturaren data).

b) Enpresa-ekimen berri bat abian jartzeko edo lehendik dagoen negozio bat eskualdatzeko egin beharreko hasierako gastuei aurre egiteko dirulaguntzen bigarren leerroan, honako ekintza eta gastu hauek lagunduko dira diruz:

* Enpresa eratzeko, jarduera abian jartzeko eta baimen-tzeko gastuak:

— Notario- eta erregistro-gastuak.

— Aholkularitza juridikoko edo finantzarioko gastuak.

— Jarduera-lizentzia eskualdatzearekin edo lizentzia berri bat eskatzearekin lotutako gastuak (bai jarduera-lizentzia eska-tzen bada, bai aldez aurreko jakinarazpena egiten bada).

* Enpresa abiarazteko egindako komunikazio-gastuak, ere-mu fisikoan zein digitalean presentzia aktiboa lortzeko:

— Komunikazio-planak garatzeko eta sare sozialak dinamiza-tzeko aholkularitza-gastuak eta publizitate-gastuak.

— Komunikazio hori egiteko euskarri fisikoak eta digitalak. Euskarri horiek Udalaren Euskara Zerbitzuak merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzeko eskaintzen duen dirulaguntzaren bidez kofinantzatu ahal izango dira.

* Jarduera Ekonomia-jardueraren gaineko Zergan alta eman edo negozioa eskualdatzeko akordioa egin ondorengo 12 hila-beteetan egindako aholkularitza-gastuak:

— Aholkularitza fiskala, lanekoa, kontabilitatekoa, juridikoa, administratiboa edo negozioaren kudeaketarako aholkularitza kontratatzea, liburuak edukitzeari eta eguneroko zerga- eta kon-tabilitate-betebeharrei, laneko arriskuei eta abarri buruz.

* Aseguru-primak (jarduera Ekonomia-jardueraren gaine-ko Zergan alta eman edo negozioa eskualdatzeko akordioa egin ondorengo 12 hilabetei dagozkien kuotak).

* Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala bada-gokio, Gizarte Segurantzaren edo nahitaezko mutua profesiona-lean norberaren konturako langile gisa egindako kotizazioaren ordainketari dagozkien kuotak (jarduera Ekonomia-jardueraren gaineko Zergan alta eman edo negozioa eskualdatzeko akor-dioa egin ondorengo 12 hilabetei dagozkien kuotak).

Enpresa berriek edo eskualdatzetik datozen negozioek gu-txienez 12 hilabetez eutsi behar diote merkataritza-jarduerari, Ekonomia-jardueraren gaineko Zergan alta eman ondoren edo negozioa eskualdatzeko akordioa formalizatu ondoren.

Artículo 6. Gastos subvencionables.

Podrán ser objeto de ayudas las siguientes acciones:

a) En la primera línea de subvención destinada a hacer fren-te a las inversiones y gastos derivados de la reforma de locales comerciales, y para la adquisición de equipos y maquinaria, serán objeto de ayudas las siguientes acciones y gastos:

* Gastos de las obras para la reforma o acondicionamien-to de un local comercial:

— Contratación de servicios profesionales para la elabora-ción y redacción del proyecto, informes técnicos, etc.

— Contratación y ejecución de la obra.

— Adquisición e instalación de equipos o mobiliario.

— Tasas de las licencias municipales precisas.

* Equipamiento y maquinaria necesaria para la realización de la actividad comercial principal:

— Adquisición, instalación y montaje de equipos y maquina-ria vinculada directa y claramente con la actividad principal del establecimiento.

— Se exige que estos activos permanezcan en la empresa como mínimo 2 años desde la fecha de adquisición (fecha fac-tura).

b) En la segunda línea de subvenciones, destinada a ha-cer frente a los gastos iniciales de la puesta en marcha de la ini-ciativa empresarial o de la transmisión de un negocio ya exis-tente. serán objeto de ayudas las siguientes acciones y gastos:

* Gastos de constitución de la empresa, de la puesta en marcha de la actividad y de su autorización:

— Gastos notariales y registrales.

— Gastos de asesoría jurídica o financiera.

— Gastos relativos a la transmisión de la licencia de activi-dad o de solicitud de una nueva licencia (tanto si se solicita li-cencia de actividad como la comunicación previa).

* Gastos de comunicación relacionados con la puesta en marcha de la empresa, dirigidos a conseguir una presencia ac-tiva tanto en ámbito físico como en el digital:

— Asesoramiento para el desarrollo de planes de comunica-ción, dinamización de redes sociales y gastos publicitarios.

— Los soportes, tanto físicos como digitales para realizar esta comunicación. Estos soportes podrán ser cofinanciados a través de la subvención que ofrece el Servicio de Euskera del Ayuntamiento para fomentar el uso del euskera en el comercio y las empresas.

* Gastos de asesoramiento realizados durante los 12 me-ses siguientes al alta de la actividad en el IAE o a la fecha de acuerdo de la transmisión del negocio:

— Contratación de asesoramiento fiscal, laboral, contable, jurídico, administrativo o de gestión del negocio relativo a la te-neduría de libros y obligaciones fiscales y contables cotidianas, sobre riesgos laborales, etc.

* Primas de seguros (cuotas correspondientes a los 12 meses siguientes al alta de la actividad en el IAE o a la fecha de acuerdo de la transmisión del negocio).

* Las cuotas correspondientes al pago de la cotización como persona trabajadora por cuenta propia en el Régimen Es-pecial de Trabajadores Autónomos o, en su caso, de la Seguri-dad Social o de la mutua profesional obligatoria (cuotas corres-pondientes a los 12 meses siguientes al alta de la actividad en el IAE o a la fecha de acuerdo de la transmisión del negocio).

Se exige que las nuevas empresas o los negocios proceden-tes de traspaso mantengan la actividad comercial por lo menos durante 12 meses tras el alta en el IAE o tras la fecha de forma-lización del acuerdo de transmisión del negocio.

Ez dira inola ere diruz lagunduko:

- Lokal bat erostea.
- Lokal bat alokatzea.
- Frankizia-kanonak.
- Enpresak ondoren merkaturatuko dituen merkataritza-produktuak eta/edo lehengaiak erostea.

- Material suntsikorrak eta bulegorako materiala erostea.
- Negozioaren funtzionamendurako gastu arruntak.
- Negozioaren jarduera nagusiarekin lotura zuzena eta argia ez duten ekipoak edo makinak erostea.
- Terrazekin lotutako jarduketak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ).

7. artikulua. Eskabideak aurkeztea.

Eskatzaile fisiko edo juridiko bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du, a) lerroan edo b) lerroan.

Lerroa hautatu ondoren, egokitzen jotzen dituen ekintzei lotutako gastuak aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta diruz lagun daitezkeen gastutzat jotzen badira.

Dirulaguntza eskaerarekin batera ondoko agiri hauek aurkeztuko dira:

- Eskabide-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Pertsona fisikoaren edo juridikoaren NANaren edo IFKaren kopia, aurreko ekitaldietan aurkeztu ez bada.
- Enpresaren eratze-eskiriturak eta ondorengo aldaketak, aurreko ekitaldietan aurkeztu ez badira.

- Ekonomia-jardueraren gaineko Zergan alta ematea.
- Eskualdatu diren negozioen kasuan, eskualdatze-kontratuaren edo -erabakiaren egiaztagiria aurkeztuko da, dagoeneko formalizatu bada.

- Enpresa sortu berrien edo eskaera egiteko unean formalizatu ez diren transmisio batetik datozen negozioen kasuan, dagozkion dokumentuak eratzten direnean edo eskualdatzea formalizatzen denean aurkeztu beharko dira.

- a) edo b) dirulaguntzen lerroan aurkezten diren zehaztuko da.

- Diruz lagundu nahi diren ekintzen deskribapen laburra, balorazio-irizpideak argitzen edo justifikatzen dituzten informazioa, ziurtagiriak edo dokumentuak barne.

- Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.

- Dirulaguntzaren xede diren inbertsio eta gastuen fakturak eta ordainagiriak.

- Enpresak programa honetako inbertsio berberak finantzatzeko beste laguntzarik eskatu badu, horien egiaztagiria aurkeztu beharko du.

- Legazpiko Udalak eskatzea beharrekotzat jotzen duen beste edozein agiri osagarri.

Legazpiko Udalak, Nisae nodoaren bidez, Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruzko beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, bai eta dirulaguntza honen administrazio-izapideak egiteko eskatzen den beste edozein ere. Horregatik, ez dira elkarerragingarriak izan daitezkeen datuak eskatuko, betiere interesduna datu horiek erabiltzearen aurka ez badago; kasu horretan, hau da, aurka egonez gero, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu interesdunak.

En ningún caso se subvencionará:

- La compra de un local.
- El alquiler de un local.
- Los cánones de franquicias.
- La compra de productos comerciales y/o materias primas que sean objeto de comercialización posterior por parte de la empresa.
- La compra de materiales fungibles y de oficina.
- Los gastos corrientes de funcionamiento del negocio.
- La compra de equipos o maquinaria que no esté directa y claramente vinculada con la actividad principal del negocio.
- Las actuaciones relacionadas con las terrazas.
- El impuesto sobre el valor añadido (IVA).

Artículo 7. Presentación de solicitudes.

Cada persona solicitante, física o jurídica, podrá presentar una única solicitud, bien en la línea a) o en la línea b).

Una vez seleccionada la línea, podrá presentar los gastos asociados a las acciones que considere oportunas siempre que se consideren gastos subvencionables.

Para optar a las presentes ayudas deberá presentarse la siguiente documentación:

- Impreso de solicitud oficial debidamente cumplimentado y firmado.

- Copia del CIF o DNI de la persona física o jurídica en caso de no haberlos presentado en ejercicios anteriores.

- Escrituras de constitución de la empresa y posteriores modificaciones en caso de no haberlos presentado en ejercicios anteriores.

- Alta en el IAE.

- En el caso de negocios procedentes de una transmisión se presentará el justificante del contrato o acuerdo de transmisión, en el caso de que ya se haya formalizado.

- En el caso de las empresas de nueva creación o de negocios procedentes de una transmisión que en el momento de realizar la solicitud no se hayan formalizado, los documentos correspondientes se deberán presentar cuando se constituyan o cuando se formalice el traspaso.

- Indicación de la línea de subvenciones a) o b) a la que se presentan.

- Breve descripción de la acción o acciones que pretendan ser subvencionadas, incluyendo la información, certificados o documentos que aclaren o justifique los criterios de valoración.

- Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de la persona solicitante.

- Facturas y justificantes de pago de las inversiones y gastos para las que se solicite la subvención.

- En caso de que la empresa haya solicitado otras ayudas para financiar las mismas inversiones que en este programa, deberá presentar justificante de las mismas.

- Cualquier otra documentación adicional que, en su caso, considere necesaria solicitar el Ayuntamiento de Legazpi.

El Ayuntamiento de Legazpi, mediante el nodo de Nisae, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención. Es por ello que dejará de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritza. Artikulu horren arabera, herritarrek eskubidea dute edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, aplikatzen den araudi erregulatzailerak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak edo interesdunak edozein administraziori lehenago emandakoak ez aurkezteko.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluan adierazita-koaren arabera, administrazioen betebeharrak da lankidetzan aritzea datu-trukearen arloan, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.

Ildo horretan, deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, Legazpiko Udalak honako betekizun hauek egiaztatuko ditu Nisae datu-bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik:

– Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusian: interesdunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituen kontsultatuko da.

– Gipuzkoako Foru Ogasunean: interesdunak zerga-betebeharrak egunean dituen kontsultatuko da.

Interesdunak berariaz uko egin ahal izango dio egiaztapen horri eskaera aurkezteko unean, eta, kasu horretan, eskatutako ziurtagiriak eta bestelako datuak aurkeztu beharko ditu.

Eskabideak osatu gabe badaude, 15 eguneko epea emango da gabezia konpontzeko, eta epe hori igaro eta eskabidea osatu ez bada, artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

8. artikulua. Epeak.

Eskabideak dagokion deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dira.

9. artikulua. Eskabideak aurkezteko lekua.

Pertsona fisikoek bi eratara aurkez dezakete eskabidea:

– Aurrez aurre, Legazpiko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

– Telematikoki, Legazpiko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez: <https://egoitza.legazpi.eus>.

Pertsona juridikoek telematikoki aurkeztuko dute eskabidea, Legazpiko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez: <https://egoitza.legazpi.eus>.

10. artikulua. Eskabideak ebaluatzea.

Merkataritzako administrazio-unitateak izapidetuko ditu eskabideak, eta berak aztertuko eta ebaluatuko ditu.

Dirulaguntza norgehiagoka-erregimenean emango da, oinarri hauetako 11. artikuluko balorazio-irizpideen arabera, kreditua agortu arte.

Dagozkion erabakiak hartzeko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, deialdi honetan eskaerak aurkezteko ezarritako epea amaituko den egunetik kontatzen hasita.

Ebazpena ezarritako epeetan jakinarazten ez bada, eskabideak ukatu egin direla ulertu ahal izango da, administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritako isiltasunaren ondorioetarako.

11. artikulua. Baloratzeko irizpideak.

Aurkeztutako proiektuak ondorengo irizpideen arabera baloratuko dira:

Baloratzeko irizpideak (guztira 100 puntu).

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de éstas.

En este sentido, el ayuntamiento de Legazpi va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

– Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.

– Hacienda Foral de Gipuzkoa: Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

La persona interesada podrá oponerse expresamente a dicha acreditación en el momento de presentar la solicitud, debiendo aportar en este caso los certificados y otros datos requeridos.

En el caso que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 15 días para la reparación de la carencia y, una vez transcurrido este plazo sin que se haya completado la solicitud, se procederá al archivo de la misma sin más trámites.

Artículo 8. Plazos.

Las solicitudes deberán presentarse dentro del plazo establecido en la correspondiente convocatoria.

Artículo 9. Lugar de presentación de solicitudes.

Las personas físicas podrán elegir entre dos modos de presentar la solicitud:

– De forma presencial, en el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Legazpi.

– De forma telemática, a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Legazpi: <https://egoitza.legazpi.eus>.

Las personas jurídicas presentarán la solicitud de forma telemática a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Legazpi: <https://egoitza.legazpi.eus>.

Artículo 10. Evaluación de solicitudes.

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Comercio que se encargará del examen y evaluación de las mismas.

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva según los criterios de valoración del artículo 11 de estas bases, hasta agotar el crédito.

El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones correspondientes será de 1 mes, contado a partir de la finalización del plazo para presentación de solicitudes indicado en la convocatoria correspondiente.

La falta de notificación de la resolución en los plazos establecidos podrá considerarse como denegación de las correspondientes solicitudes a los efectos de silencio fijados en la normativa sobre procedimiento administrativo.

Artículo 11. Criterios de valoración.

Los proyectos presentados se valorarán en base a los siguientes criterios:

Criterios de valoración (100 puntos en total).

* 1. irizpidea (10 puntu):

Pertsona fisiko eskatzailea edo pertsona juridiko eskatzailearen bazkidea edo parte-hartzailea kolektibo honetako kidea da:

- Emakumea.
- Epe luzeko langabetua.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren titularra edo onuraduna.
- % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortua duen pertsona.
- 35 urtetik beherakoa edo 55 urtetik gorakoa, langabezian dagoena.
- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoen pertsona.
- Familian betebeharrak dituen pertsona:
 - ≡ 0 eta 16 urte bitarteko seme-alabak edo familia-harreraren hartutako adingabeak dituen pertsona.
 - ≡ % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten 16 urtetik gorako seme-alabak dituen pertsona.
 - ≡ Mendetasun-egoera egiaztatuta duten bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko senideak dituen pertsona.

* 2. irizpidea (10 puntu):

5 langiletik beherako plantilla duten enpresak (bazkideak, autonomoak edo enpresaburuak barne, baldin eta horiek ere langileak badira).

* 3. irizpidea (10 puntu):

Izen soziala Legazpin duten enpresak.

* 4. irizpidea (10 puntu):

Enpresa udalaren web-orriko enpresa-bilatzailean egotea edo alta emateko eskaera eginda izatea (baldintza hori laguntza eskatzeko data baino lehen bete behar da).

* 5. irizpidea (10 puntu):

Enpresak merkataritza-sozietateen partaidetzarik ez izatea.

* 6. irizpidea (10 puntu):

Enplegua sortzea, ekintzaileez gain.

* 7. irizpidea (10 puntu):

Iraunkortasun-irizpideak sartzea enpresako produktuen prozeduretan, ondasunetan, kudeaketan, ekoizpenean eta merkaturatzean:

- Produktu jasagarriak ekoiztea eta merkaturatzea: hurbileko produktuak eta/edo produktu ekologikoak.
- Energiaren kudeaketa efizientea (energia-eraginkortasuna) eta/edo energia berriztagarriak erabiltzea sustatzen duten neurriak, (adibidez, komunitate energetiko baten kidea izatea).
- Hondakinak murriztea errazten duten neurriak eta tresnak aplikatzea.

* 8. irizpidea (10 puntu):

Laguntza honetara aurkezten den jarduketa oztupo arkitektonikoak edo irisgarritasuna hobetzeko beste neurri batzuk kentzera bideratuta egotea.

* 9. irizpidea (10 puntu):

Barruko eta kanpoko errotulazioa, web orria, sare sozialak edo kanpora begirako komunikazio eta publizitateko beste elementu batzuk euskaraz eskaintzea.

* 10. irizpidea (10 puntu):

Jarduera gaur egun hutsik dagoen Legazpiko merkataritza-edo ostalaritza-lokal batean ezartzea.

* Criterio 1 (10 puntos):

La persona física solicitante o la persona socia o partícipe de la persona jurídica solicitante pertenece a un colectivo que se describe a continuación:

- Mujer.
- Persona parada a largo plazo.
- Titular o persona beneficiaria perceptora de la RGI.
- Persona que tenga reconocida un grado de discapacidad igual o superior al 33 %.
- Persona menor de 35 años o mayor de 55 años, en paro.
- Persona en riesgo de exclusión social.
- Persona con obligaciones en el ámbito familiar:
 - ≡ Personas con hijos o hijas o menores en régimen de acogimiento familiar, de 0 a 16 años.
 - ≡ Personas con hijos o hijas mayores de 16 años en caso de discapacidad igual o superior al 33 %.
 - ≡ Familiares hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad, acreditada la situación de dependencia.

* Criterio 2 (10 puntos):

Empresas cuya plantilla sea de menos de 5 personas trabajadoras (incluidas las personas socias, autónomas o empresarias, que también sean trabajadoras).

* Criterio 3 (10 puntos):

Empresas con razón social en Legazpi.

* Criterio 4 (10 puntos):

Que la empresa esté en el buscador de empresas de la página web del Ayuntamiento o haber realizado la solicitud de alta (este requisito debe cumplirse antes de la fecha de solicitud de esta subvención).

* Criterio 5 (10 puntos):

Que la empresa no esté participada por sociedades mercantiles.

* Criterio 6 (10 puntos):

Crear empleo, además de la/s persona/s emprendedora/s.

* Criterio 7 (10 puntos):

Incluir criterios de sostenibilidad en los procedimientos, en los bienes, la gestión, producción y comercialización de los productos de la empresa:

- Producción y comercialización de productos sostenibles: productos de proximidad y/o ecológicos.
- Medidas que contribuyan a la gestión eficiente de la energía (eficiencia energética) y/o utilización de energías renovables (por ejemplo, ser empresa socia de una comunidad energética).
- Aplicación de medidas y herramientas que faciliten la reducción de residuos.

* Criterio 8 (10 puntos):

Que la actuación que se solicita en esta ayuda esté dirigida a eliminar barreras arquitectónicas u otras medidas de mejora de la accesibilidad.

* Criterio 9 (10 puntos):

Qué la rotulación interior y exterior, la página web, redes sociales u otros elementos de comunicación y publicidad hacia el exterior se ofrezcan en euskera.

* Criterio 10 (10 puntos):

Que la actividad se implante o vaya implantar en un local comercial o de hostelería de Legazpi que en la actualidad se encuentre vacío.

Aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutako eskabideen balorazioa egingo da, eta puntuazio handiena lortzen duten eskaerei emango zaie dirulaguntza, kreditu erabilgarria agortu arte. Berdinketa gertatzen bada puntuazio txikiena lortu duten eskabideen artean, lehenago aurkeztutako eskaerari emango zaio dirulaguntza.

12. artikulua. Ez-betetzea.

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean finkatzen diren betebeharrak edozein betetzen ez bada, dirulaguntza berrikusi egingo da, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa ezeztatuko itzuli beharko da, dirulaguntzak emateari buruzko udal-araudian aurreikusitako moduan.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa ezeztatzea, murriztea edo itzultzea ebatzi ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozedura izapidetzean, edozein ere, interesdunak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

2026ko deialdia enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko eta tokiko merkataritza suspertze-ko dirulaguntzak emateko.

1. artikulua. Xedea.

Laguntza hauei buruzko deialdiaren helburua da Legazpiko zerbitzu-sektorean jarduera ekonomikoa sustatzea, dirulaguntza hau emanez honako prozesu hauetan laguntzeko:

- Herrian jarduera ekonomikoko berriak abiarazteko prozesuan.
- Legazpiko negozioen enpresa-erleborako prozesuan.
- Legazpiko jarduera ekonomikoen modernizazio eta iraunkortasun prozesuan.

2. artikulua. Araudi aplikagarria.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena; Legazpiko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorra, udal horren osoko bilkurak 2006ko abuztuaren 8an onartua, eta Legazpin merkataritza eta ostalaritza sustatzeko laguntzak emateko oinarri espezifikoak, udal horren tokiko gobernu-batzordeak 2026ko ekainaren 22an onartuak.

3. artikulua. Berriarazko baldintzak.

Dirulaguntza hau arautzen duten oinarrien 4. artikuluan adierazitako baldintza orokorreaz gain, 2026ko deialdian, eskaera aurkeztean duten pertsona fisiko edo juridikoek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntzaren lehen lerroa: merkataritza-lokalak berri-
tzeko eta ekipok eta makinak erosteko inbertsioak eta gas-
tuak.

— Fakturen datek 2025eko irailaren 16tik 2026ko irailaren 15era bitartekoa izan beharko dute.

b) Dirulaguntzaren bigarren lerroa: enpresa-ekimen berri bat abian jartzeko edo lehendik dagoen negozio bat eskualdatzeko hasierako gastuak.

— Jarduera ekonomikoko berriak: jarduera ekonomikoko berritza hartzen dira 2025eko irailaren 16tik 2026ko irailaren 15era bitartean (biak barne). Ekonomia-jardueraren gaineko Zergan alta emanda daudenak.

— Lehendik dauden negozioen eskualdatzea: 2025eko irailaren 16tik 2026ko irailaren 15era bitartean, biak barne, eskualdatze-akordioa formalizatu edo formalizatzen duten negozioak hartzen dira kontuan.

Una vez finalizado el plazo de presentación, se realizará una valoración de las solicitudes presentadas, otorgándose la subvención a las solicitudes que obtengan mayor puntuación hasta agotar el crédito disponible. En caso de empate entre las solicitudes que hayan obtenido la menor puntuación, se otorgará la subvención a la solicitud que se haya presentado antes.

Artículo 12. Incumplimiento.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes Bases o en la concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, o reintegro de la cantidad otorgada, en la forma prevista en la normativa municipal sobre concesión de subvenciones.

El procedimiento de reintegro de las subvenciones se iniciará de oficio, a instancia del órgano que concedió la ayuda o subvención, y en su caso podrá resolverse, de forma motivada, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada. En la tramitación del procedimiento se garantizará en todo caso, el derecho de audiencia del o de la interesada.

Convocatoria 2026 para la concesión de ayudas económicas destinadas a la mejora competitiva de las pequeñas y medianas empresas y a la revitalización del comercio local.

Artículo 1. Objeto.

El objeto de la convocatoria referente a las presentes ayudas es el de fomentar la actividad económica en el sector servicios de Legazpi mediante el otorgamiento de esta subvención para ayudar en los procesos de:

- Emprendizaje de nuevas actividades económicas en la localidad.
- Relevo empresarial de los negocios de Legazpi.
- Modernización y sostenibilidad de las actividades económicas de Legazpi.

Artículo 2. Normativa aplicable.

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, Ordenanza General reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Legazpi, aprobada por el pleno de este ayuntamiento el 8 de agosto de 2006 y las bases específicas de concesión de ayudas para la promoción del comercio y la hostelería en Legazpi, aprobadas por la Junta de Gobierno Local de este ayuntamiento el 22 de junio de 2026.

Artículo 3. Requisitos específicos.

Además de los requisitos generales indicados en el artículo 4 de las Bases reguladoras de esta subvención, en la convocatoria del año 2026, las personas físicas o jurídicas que presenten una solicitud deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Primera línea de subvención: inversiones y gastos derivados de la reforma de locales comerciales y para la adquisición de equipos y maquinaria.

— Las facturas correspondientes deben estar comprendidas entre el 16 de septiembre de 2025 y 15 de septiembre de 2026, ambos incluidos.

b) Segunda línea de subvención: a los gastos iniciales de la puesta en marcha de la iniciativa empresarial o de la transmisión de un negocio ya existente.

— Actividades económicas nuevas: se considerarán actividades económicas nuevas aquellas dadas de alta en el IAE entre el 16 de septiembre de 2025 y 15 de septiembre de 2026, ambos días incluidos.

— Transmisión de negocios ya existentes: Se consideran aquellos negocios que hayan formalizado o formalicen el acuerdo de traspaso 16 de septiembre de 2025 y 15 de septiembre de 2026, ambos días incluidos.

— Dirulaguntza-lerro honetan onartutako gastuen fakturek 2025eko irailaren 16tik 2026ko irailaren 15era bitartekoak izan behar dute, biak barne.

— Aseguru-primen, lan-aholkularitzako kontratuen, kontabilitate-kontratuen eta abarren kasuan, eta langileen edo autonomoen kotizazioa ordaintzearen kasuan, jarduera Ekonomia-jardueraren gaineko Zergan alta eman edo negozioa eskualdatzeko akordioa egin ondorengo 12 hilabeteetako kuotei dagozkien fakturak edo ordainagiriak aurkeztu ahal izango dira.

4. artikulua. Aurrekontuko diru-kopurua.

Programa hau 20.000 €-rekin hornitu da, eta Legazpiko Udaren 2026rako Aurrekontu Orokorretako «001 0201 43100 47121 - Tokiko negozio txikiarentzako laguntzak» aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da.

Dirulaguntza bi lerrotan banatuko da:

a) 12.000 € merkataritza-lokalak berritzetik eta ekipoak eta makinak erostetik eratorritako inbertsio eta gastuei aurre egiteko.

b) 8.000 € enpresa-ekimen berri bat abian jartzeko edo lehendik dagoen negozio bat eskualdatzeko egin beharreko hasierako gastuei aurre egiteko laguntzetarako.

Hala ere, lerroren batean dirua soberan geratuz gero, zenbateko hori beste lerroari metatu ahal izango zaio.

5. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Onartutako inbertsio eta gastuen % 40a lagunduko da diruz dirulaguntza honen oinarrien 11. artikuluan adierazitako balorazio-irizpideen arabera, eta gehienez ere, 1.200 € establezimenduko eta urteko.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, gastuen oinarria hartuko da kontuan, BEZa eta beste zerga eta tasa batzuen ordainketa eta atxikipenak kenduta.

Dirulaguntza horiek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baina debekatuta dago gainfinantzatzea.

6. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntzaren % 100 ordainduko da behin dirulaguntza ematea onartzen denean eta gastuen fakturak edo ordainagiriak eta horiek ordaindu izanaren egiaztagiriak udalean aurkeztu ondoren.

7. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea.

Laguntza-eskabideak 2026ko irailaren 15eko 15:00ak arte aurkeztu ahal izango dira.

8. artikulua. Justifikazioa.

Laguntza justifikatzeko, egindako gastu edo inbertsioei dagozkien fakturak edo ordainagiriak aurkeztuko dira Legazpiko Udalean, bai eta ordainketa-egiaztagiriak ere:

a) Dirulaguntzaren lehen lerroa: merkataritza-lokalak berritzeko eta ekipoak eta makinak erosteko inbertsioak eta gastuak.

— Fakturen datek 2025eko irailaren 16tik 2026ko irailaren 15era bitartekoa izan beharko dute, biak barne.

b) Dirulaguntzaren bigarren lerroa: enpresa-ekimen berri bat abian jartzeko edo lehendik dagoen negozio bat eskualdatzeko hasierako gastuak.

— Fakturen datek 2025eko irailaren 16tik 2026ko irailaren 15era bitartekoa izan beharko dute, biak barne.

— Las facturas correspondientes a los gastos aprobados en esta línea de subvención deben estar comprendidas entre el 16 de septiembre de 2025 y 15 de septiembre de 2026, ambos incluidos.

— En el caso de primas de seguros, contratos de asesoramiento laboral, contable, etc., y pago de la cotización de personas trabajadoras o autónomos, se podrán presentar las facturas o recibos correspondientes a las cuotas de los 12 meses siguientes al alta de la actividad en el IAE o a la fecha de formalización del acuerdo de transmisión del negocio.

Artículo 4. Dotación presupuestaria.

Este programa se ha dotado con 20.000 € y se financiará con cargo a la partida presupuestaria «001 0201 43100 47121 «Ayudas al pequeño negocio local» de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el año 2026.

Esta subvención se distribuirá entre 2 líneas subvencionables:

a) 12.000 € para las inversiones y gastos hacer frente a las inversiones y gastos derivados de la reforma de locales comerciales y para la adquisición de equipos y maquinaria.

b) 8.000 € para las ayudas para hacer frente a los gastos iniciales de la puesta en marcha de la iniciativa empresarial o de la transmisión de un negocio ya existente.

No obstante, en el caso de que en alguno de los dos sobra, este importe podrá acumularse a la otra línea.

Artículo 5. Cuantía de la subvención.

Se subvencionará el 40 % de las inversiones y gastos aprobados, de acuerdo con los criterios de valoración señalados en el artículo 11 de las bases de la presente subvención, con un máximo de 1.200 € por establecimiento y año.

El importe de la subvención se calculará sobre la base de los gastos, excluidos el IVA y el pago y retenciones de otros impuestos y tasas.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, si bien queda prohibida la sobrefinanciación.

Artículo 6. Abono de la subvención.

Se abonará el 100 % de la subvención cuando se apruebe su concesión y una vez presentados en el ayuntamiento las facturas o recibos de los gastos, y los justificantes de pago de los mismos.

Artículo 7. Plazo de presentación de las solicitudes.

Las solicitudes de ayuda podrán presentarse hasta las 15:00 horas del 15 de septiembre de 2026.

Artículo 8. Justificación.

Para justificar la ayuda se presentarán en el Ayuntamiento de Legazpi las facturas o recibos correspondientes a los gastos o inversiones realizadas, así como los justificantes de su pago:

a) Primera línea de subvención: inversiones y gastos derivados de la reforma de locales comerciales y para la adquisición de equipos y maquinaria.

— Las facturas deben estar comprendidas entre el 16 de septiembre de 2025 y 15 de septiembre de 2026, ambos incluidos.

b) Segunda línea de subvención: a los gastos iniciales de la puesta en marcha de la iniciativa empresarial o de la transmisión de un negocio ya existente.

— Las facturas deben estar comprendidas entre el 16 de septiembre de 2025 y 15 de septiembre de 2026, ambos incluidos.

— Aseguru-primen, lan-aholkularitzako kontratuen, kontabilitate-kontratuen eta abarren kasuan, eta langileen edo autonomoen kotizazioa ordaintzearen kasuan, jarduera Ekonomia-jardueraren gaineko Zergan alta eman edo negozioa eskualdatzeko akordio-dataren ondorengo 12 hilabeteetako kuotei dagozkien fakturak edo ordainagiriak aurkeztu ahal izango dira.

Gainera,

— Ekonomia-jardueren gaineko zergan emandako alta, eskabidean aurkeztu ez bada.

— Negozioa eskualdatzeko akordioaren formalizatzea, eskabidean aurkeztu ez bada.

Gainera, Udalak beharrezkoak diren dokumentuak eskatu ahal izango ditu, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 30. eta 31. artikuluetan araututakoaren arabera.

— En el caso de primas de seguros, contratos de asesoramiento laboral, contable, etc. y pago de la cotización de personas trabajadoras o autónomos, se podrán presentar las facturas o recibos correspondientes a los 12 meses siguientes al alta de la actividad en el IAE o a la fecha de acuerdo de transmisión del negocio.

Además,

— Alta en el IAE en el caso de que no la hubiera presentado en la solicitud.

— Formalización de acuerdo de transmisión del negocio, en el caso de que no lo hubiera presentado en la solicitud.

Además, el Ayuntamiento podrá solicitar los documentos necesarios según la regulación de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, en sus artículos 30 y 31.